

In Memoriam: Juan Plazaola

El gran investigador Juan Plazaola, siempre fiel al lema de Eusko Ikaskuntza: Asmoz eta Jakitez

Para los que no conozcan la trayectoria del padre jesuita Juan Plazaola es necesario reseñar su gran y larga labor investigadora. Nacido el 21 de enero de 1919 en San Sebastián, ingresó en la Compañía de Jesús en Bélgica en 1936 y se doctoró en Letras por la Universidad de París y de Filosofía por la Universidad Complutense de Madrid, siendo en la actualidad profesor emérito de la Universidad de Deusto, tras haber sido Rector del Centro de Humanidades de la Compañía de Jesús en Salamanca, profesor de Estética en la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Deusto, catedrático de Historia de Arte y Decano de Filosofía y Letras en los Estudios Universitarios y Técnicos (EUTG en San Sebastián), Rector de ese centro en dos períodos (1977-1979 y 1979-1985) y Vicecanciller de la Universidad de Deusto (1979-1985). Pero su labor investigadora y de trabajo constante no acabó aquí y, a pesar de superar una grave enfermedad, continuó a su ritmo, con absoluta tenacidad labores docentes como invitado especial en universidades americanas y continuó con diferentes estudios y en diferentes ámbitos sobre Arte y Estética.

Los miembros activos de la Sección de Artes Plásticas y Monumentales de EI, así como los colaboradores habituales de la revista Ondare, cuyo director ha sido durante estos años precisamente Juan Plazaola admiramos, en estos tiempos *confusos*, con una acusada carencia de valores no sólo su erudición y labor investigadora sobre la historia del arte y la estética sino también apreciamos su talento, su afán colaborador, siempre generoso y su destacada bonhomía.

Este reconocimiento también tuvo su manifestación en la propia Sociedad de Estudios Vascos otorgándole junto a Jesús Altuna el Premio 1998 Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades y Ciencias Sociales. Del Discurso pronunciado por el propio Plazaola en el Acto de entrega del mencionado premio destacamos el siguiente pasaje que ilustra las circunstancias que llevaron a este investigador a adentrarse en el mundo de la Literatura y del Arte. “Estudiar en profundidad es para mí buscar las causas de lo que tengo ante mí como simple fenómeno... Indagar sobre la significación y las causas ante los fenómenos estéticos –la Literatura y las Artes Plásticas– me obligó a introducirme en la Estética. Y por ese camino avanzaron mis primeros trabajos. Cuestiones humanísticas

y cuestiones sociales. En esa doble vertiente se enmarca la concesión de este premio... La obra artística es una creación de formas expresivas sobre una materia dada. Sí, materia y forma. Eso es lo inmediatamente perceptible. Pero, ¿qué hombre está detrás aplicando sus manos, su sensibilidad, su cerebro y su corazón, a ese material y elaborando esas formas? ¿Qué hombre está ahí y de qué sociedad, quizá sin quererlo, se hace portavoz ese hombre? El análisis de la obra de arte y de su historia, en nuestro pueblo y fuera de él, me ha llevado siempre a profundizar en estas dos dimensiones: ese Yo personal que es el artista y ese Yo múltiple que es la sociedad de la que se nutre el artista”.

Como bien señalaba el propio Plazaola este planteamiento fue el generador del libro *El Arte y el Hombre de Hoy*, premiado por la Fundación Simancas de Valladolid y también veinte años después el exhaustivo estudio, con más de 1.000 páginas *Historia y Sentido del Arte Cristiano* en el que se analiza en propias palabras de Plazaola qué tipo de sociedad cristiana está y ha estado detrás de las expresiones artísticas de cada época en el curso de estos 20 siglos. Un libro de historia y de reflexión como se lo ha definido, un compendio de obras y autores, acompañado de textos al final de cada capítulo, un libro cuya novedad estriba especialmente en ese acercamiento a los contenidos del arte cristiano, su razón de ser, sus problemas y momentos críticos etc...

Además de los mencionados libros destacaría por su gran utilidad como instrumento clave para conocer qué es el arte y de cómo el arte se vincula a la historia cotidiana y social el estudio *Modelos y teorías de la Historia del Arte*, publicado en 1987 en los Cuadernos del Departamento de Historia de la Facultad de Filosofía y Letras en su sede de San Sebastián. Aquí el estudiante interesado aprenderá que no hay una sola teoría ni método concreto único que determine con exclusividad el conocimiento sobre el arte, sobre los estilos y formas que lo componen, sino que todas las aportaciones y sistemas desarrollados hasta la fecha sobre lo que podríamos denominar historia de la historia del arte junto con los determinados enfoques recientes que plantea Plazaola: el enfoque técnico-materialista, la voluntad artística, la vida de las formas, el punto de vista psico-histórico, la encuesta iconológica, el enfoque personalista, el psicoanálisis del arte, el método de las generaciones, el modelo marxista, los enfoques sociológicos etc...son simples instrumentos para acercarse a la complejidad del estudio de la historia del arte. Deberá el estudiante aprender también la significación concreta de cada obra y para ello tendrá que observar, analizar y describir la misma siendo objetivo. Deberá valorarla desde el punto de vista estético y deberá analizar el por qué y para qué se creó esa obra.

Introducción a la Estética. Historia, Teoría, Textos, publicado en segunda edición por la Universidad de Deusto en Bilbao 1991 se convirtió enseguida en un manual imprescindible de consulta para los historiadores y para los universitarios de la disciplina de la estética. Una obra trascendental, en la que Plazaola reitera su objetivo de “hacerla pedagógicamente eficaz” y que a través de sus más de 600 páginas el autor analiza en una primera parte, denominada Historia las ideas estéticas desde su *Gestación*, partiendo de los planteamientos presocráticos y de los metafísicos hasta llegar al racionalismo de Leibniz y

Spinoza, posteriormente la del *Nacimiento* en la que aparecen los juicios de gusto, lo subjetivo y los principios universales del S. XVIII, las teorías de Kant, las tesis románticas etc... la *Crisis de Crecimiento* en la que el campo de investigación se ensancha al utilizar otras ciencias: el psicoanálisis, la sociología, la semiótica, la etnología, la cibernética... apareciendo al final de este apartado el arte de las computadoras, un arte experimental y técnico. En la segunda parte de este gran ensayo, *Teoría y Textos* el autor utiliza otra metodología a través de doce destacados capítulos, subdivididos a su vez en otros, al final de los cuales presenta el autor una cuidada selección de textos, no solamente propiamente filosóficos sino de artistas tanto escultores como pintores, poetas, músicos, novelistas, arquitectos... A través de este largo recorrido Plazaola aborda de manera sencilla pero con la rigurosidad que le caracteriza los problemas de la estética: la tipología de la belleza, los problemas que ella genera el objeto de la estética y su vivencia, arte y artesanía, el arte como mimesis y como expresión de lo real, el proceso de creación, la inspiración y el subconsciente en el artista, la obra de arte como creación, la emoción humana y el sentimiento estético, cómo se estructura la obra de arte y qué factores lo componen, el arte y la sociedad, el arte y la moral para acabar con el último apartado sobre el arte y la religión.

La presentación del libro *Los Anchieta. El músico, el escultor, el santo* publicada por Ediciones Mensajero en 1997 tuvo lugar en el Museo Diocesano de Donostia por parte del crítico musical Jon Bagüés, el profesor Edorta Kortadi, asistiendo entre otros participantes el entonces obispo de San Sebastián, Monseñor Setién y la diputada de Cultura en aquellas fechas, Koruko Aizarna.

Plazaola presentaba en los tres capítulos que configuran el libro al músico Juanes de Anchieta, maestro de música y cantor de la capilla Real de Isabel la Católica, al escultor Juan de Anchieta, máximo exponente del Romanismo miguelangelesco y al santo José de Anchieta, el fundador de Sao Paulo y civilizador de Brasil; los tres artistas y procedentes del solar guipuzcoano de los Anchieta de Urrestilla.

El trabajo de Plazaola como investigador no cesó en ningún momento de su vida, como lo demostró en el proyecto realizado para la RIEV en el que en sucesivas entregas presentó con verdadero rigor y acierto la Historia del Arte del País Vasco, desmenuzando los entresijos y vericuetos en los que se desarrollan los diferentes movimientos y estilos artísticos, señalando la bibliografía más esencial desde la visión personal y certera en la que siempre Plazaola se inscribe.

Se han publicado hasta la actualidad nueve capítulos de la serie **El arte vasco** de Juan Plazaola en las correspondientes RIEV¹. En todos ellos, el autor

1. Plazaola Artola, Juan. "Cuando no existía Vasconia". RIEV, 44, 1 (1999). "El primer arte abstracto". RIEV, 44, 2 (1999). "Vinieron los romanos". RIEV, 45, 1 (2000). "Entre francos y visigodos". RIEV, 45, 2 (2000). "El arte vasco se cristianiza". RIEV, 46, 1 (2001). "El Arte románico en Euskal Herria". RIEV, 47, 1 (2002). "El arte gótico en Euskal Herria". RIEV, 47, 2 (2002). "El primer Renacimiento en Euskal Herria: el Arte Plateresco". RIEV, 48, 2 (2003) y "El arte vasco del siglo XVII: la sobriedad del Barroco". RIEV, 49, 1 (2004).

realiza una introducción histórica o de contexto, un trabajo de síntesis en todos los campos del período estudiado y una selección bibliográfica amplia y relevante.

En el primer capítulo editado **“Cuando no existía Vasconia”** Juan Plazaola se centra sobre todo en el estudio del Paleolítico Superior (30.000-10.000 a.C), analiza sus aspectos generales, se detiene en la producción del arte mueble y sobre todo en los hallazgos de la cueva de Isturitz (Lapurdi), se sumerge en el arte rupestre resaltando los grandes santuarios como el de Santimamiñe, Altxerri y Ekain y por último reflexiona y se cuestiona a la vez sobre la significación del arte paleolítico, realizando un breve recorrido por las teorías más imperantes.

“El primer arte abstracto” aborda de manera muy atrayente el arte post-paleolítico hasta la romanización. A esta huida del realismo, se le ha llamado esquematización, estilización, abstracción. El autor estudia el hábitat hasta la edad del Hierro, el megalitismo y el tema de los cromlechs y menhires, además de analizar el desarrollo de la cerámica y de las pinturas parietales.

“Vinieron los romanos”. Si los romanos penetraron la península en el s.III a.C , la primera fase de penetración romana en el País Vasco data en los dos primeros decenios del s.II a.C. El estudio de Plazaola se centra en resaltar por una parte los modelos romanos de *civitates*, *villae* y *oppidum*, sobre todo los encontrados en territorio navarro, los restos pavimentales y de mosaicos, teniendo un tratamiento más amplio el de los restos lapídeos: aras, estelas, relieves y esculturas. Los ajuares y cerámicas es otra de las temáticas a las que se dedica este capítulo resaltando la importancia del yacimiento de Sta Elena en Irún.

“Entre francos y visigodos”. Frente a los pocos restos encontrados hasta la fecha de este período, el autor se centra principalmente en la ornamentación sobre objetos útiles, tanto francos como visigóticos hallados en las necrópolis y después en los eremitorios visigodos, sobre todo en las áreas alavesas de Valdegovía y del Condado de Treviño que demuestran los signos de una vida religiosa altomedieval en el País Vasco.

En el capítulo **“El arte vasco se cristianiza”** el autor reseña las obras más importantes influenciadas por el arte carolingio, las obras de impronta musulmana y mozárabe, las de influencia del reino astur leonés y posteriormente se centra en analizar las construcciones y restos prerrománicos en Gipuzkoa y Bizkaia junto con la iconografía específica prerrománica en Códices y Beatos.

“El arte Románico en Euskal Herria” resulta ser un recorrido atractivo por la diversidad de su desarrollo. Frente a unas provincias en las que el románico es más notable como en Álava y Navarra, en Gipuzkoa y en Bizkaia se han conservado pocas obras, fundamentalmente por el material empleado: la madera. Se analiza el primer románico vasco para pasar después a realizar un estudio por las esculturas exentas y las artes suntuarias de los s. XII y XIII.

“El arte Gótico en Euskal Herria” está dividido en dos apartados para poder estudiar los tres siglos de desarrollo del Gótico en el País Vasco: el primer arte

gótico y el fin del arte medieval. El autor hace un recorrido por las obras más notables tanto de la arquitectura como de la pintura, escultura y artes suntuarias. El autor subraya el carácter polimórfico de este período, la importancia de los cambios que no fueron sincrónicos en los distintos territorios, y de cómo el Gótico desplegó hasta el Renacimiento.

En el capítulo **“El primer Renacimiento en Euskal Herria: el Arte Plateresco”**, Juan Plazaola resalta el carácter de “importación” que debe llevar este período, la importancia que adquieren los retablos en las iglesias... Se comienza a construir “a lo romano”, conforme a modelos de la Roma antigua a través de las influencias de las regiones limítrofes: Aragón y Castilla. Desde los palacios alaveses, los templos guipuzcoanos, la villa plateresca de Oñate, todo se encuadra en este primer Renacimiento desde la arquitectura a la retablística, la pintura y la orfebrería.

En el último capítulo editado hasta la fecha, **“El arte vasco del siglo XVII: la sobriedad del barroco”** se describe este período de decadencia como tiempo de crisis demográfica, socioeconómica y política frente a una época de restauración y progreso en lo religioso a tenor del Concilio de Trento. Se presenta este período por parte del autor como de un “Primer Barroco”, cercano aún al clasicismo en el que la sobriedad se manifiesta en las formas arquitectónicas, un mayor desarrollo en los retablos y un cierto declive en la pintura.

Estos capítulos de la Historia del Arte de Euskal Herria se publicaron posteriormente en un formato de lujo y con un material didáctico fundamental para profesores, investigadores y alumnos a cargo de la editorial Ostoa.

A través de estas líneas, la que suscribe va a coordinar a partir de ahora la publicación de *Ondare* y quiere manifestar desde la humildad que requiere enfrentarse a un erudito como Juan Plazaola, la más sincera muestra de gratitud por los resultados de su trayectoria investigadora, fruto de una constante disciplina al servicio del estudio del hombre, de su historia, analizando, reflexionando precisamente a partir de sus propias creaciones para ofrecer una historia de las formas artísticas desde una posición científica, con un criterio histórico y documental que resultan y sin duda resultarán durante mucho tiempo fuente permanente de consulta para investigadores actuales y venideros.

In Memoriam: Juan Plazaola

Juan Plazaola ikertzaile handia, beti leial Eusko Ikaskuntzaren ikurritzari: Asmoz eta Jakitez

Juan Plazaola aita jesuitaren ibilbidea ezagutzen ez dutenentzat, beharrezkoa da haren ikerketa lan handi eta luzearen berri ematea. Donostian sortua, 1919ko urtarrilaren 21ean, Jesusen Lagundian sartu zen 1936an eta Letretan doktoratu zen Parisko Unibertsitatean eta Filosofian Madrilgo Unibertsitate Complutensean, gaur egun irakasle emeritua zela Deustuko Unibertsitatean, aurretik hainbat jardueratan ari izan ondoren: Salamancako Jesusen Lagundiaren Humanitateetako Zentroko Errektorea, Estetika irakaslea Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatean, Arte Historiaren katedraduna eta Filosofia eta Letretako Fakultateko Dekanoa Gipuzkoako Unibertsitate eta Teknika Ikasketetan (EUTG, Donostia), zentro horretako Errektorea bi alditan (1977-1979 eta 1979-1985) eta Deustuko Unibertsitateko Kantzelariordea (1979-1985). Baina horren ikerketa eginkizuna eta etengabeko lana ez ziren hor amaitu, eta gaixotasun larri bat gainditu ondoren, bere erritmoan jarraitu zuen, guztiz nekaezin, irakas lanetan gonbidatu berezi gisa Ameriketako hainbat unibertsitatetan eta Arte eta Estetikari buruzko hainbat azterlan jorratzen barruti desberdinetan.

Elko Arte Plastikoak eta Monumentalak Saileko kide aktiboek, bai eta *Ondare* aldizkariaren ohiko kolaboratzaileek ere, urte hauetan Juan Plazaola aldizkariaren zuzendaria izan delarik hain juxtu ere, harengan miretsi egin ditugu, balio gabezia nabarmeneko garai *nahasiotan*, artearen historia eta estetikari buruzko erudizioa eta ikerketa lana, bai eta haren aldartea, laguntzarako gogoia, eskuzabal beti, eta haren ontasun nabaria oniritzi ere.

Ezagutza horrek agerpen bat izan zuen Eusko Ikaskuntzan bertan, berari egokitu baitzitzaion, Jesus Altunarekin batera, 1998ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Humanitate eta Gizarte Zientzien Saria. Plazaola berak sari horren emate ekitaldian eginiko hitzalditik ondoko pasartea nabarmentzen dugu, ongi adierazten baititu ikertzaile hori Literaturaren eta Artearen munduan sartzera eraman zuten gorabeherak. "Nire aurrean fenomeno soil gisa daukadanaren kausak bilatzea da zerbait sakonki aztertzea, nire iritziz... Fenomeno estetikoaren aurrean -Literatura eta Arte Plastikoak-, esanahiari eta kausei buruz ikertzeak Estetikan sartzera behartu ninduen. Eta bide horretatik joan ziren nire lehenengo lanak. Giza gaiak eta gizarte gaiak. Alderdi bikoitz horretan kokatzen da sari

hau ematea... Materia jakin baten gainean forma adierazkorrak sortzea da arte obra. Bai, materia eta forma. Hori da berehala hauteman daitekeena. Baina, zein gizaki dago horren atzean? Zein da bere eskuak, sentiberatasuna, burua eta bihotza materia horri aplikatu eta forma horiek lantzen ari dena? Zein gizaki dago hor eta zein gizartetako, agian berak jakin gabe, bozeramaile egiten da gizon hori? Arte obraren eta horren historiaren analisiak, gure herrian eta bertatik kanpora ere, beti eraman nau bi dimentsio hauetan sakontzera: artista den Ni personal hori eta Ni anitz hori, artista elikatzen duen gizartea”.

Plazaola berak ongi adierazten duenez, planteamendu hori izan zen **El Arte y el Hombre de Hoy** liburuaren sorrarazlea, Valladolideko Simancas Fundazioak saritua, bai eta, hogeitaz geroago, 1.000 orri baino gehiagoko **Historia y Sentido del Arte Cristiano** azterlan osoarena, non, Plazaolaren hitzetan, aztertzen den zein kristau gizarte mota dagoen eta egon den garai bakoitzaren arte adierazpenen atzean, 20 mende hauetan. Historia eta hausnarketa liburua, definitu den bezala, obra eta autoreen compendium bat, atal bakoitzaren atzean dagozkion testuak dakartzana. Kristau artearen edukietarako hurbiltze hori, arte horren izaiteko arrazoia, arazoak eta une kritikoak... dira bereziki liburu honen berritasuna.

Aipaturiko liburuez gainera, artea zer den eta artea eguneroko historiarekin eta historia sozialarekin nola lotzen den ezagutzeko duen baliagarritasun garrantzitsuagatik, **Modelos y teorías de la Historia del Arte** azterlana nabarmenduko nuke, 1987an Filosofia eta Letretako Fakultateko Historia Departamentuko Koadernoetan argitaraturikoa, Donostiako egoitzan. Hemen, ikasle interesatuak ikasiko du ez dela ez teoria ez metodo zehatz bakarra, arteari buruz, artea osatzen duten estiloei eta formei buruz, jakintza guztia eta osorik dakarrenik, baizik eta artearen historiaren historia dei genezakeenaren inguruan, gaur arte garaturiko ekarpen eta sistema guztiak, Plazaolak planteatzen dituen ikuspegi berri jakin batzuekin batera –ikuspegi tekniko-materialista, borondate artistikoa, formen bizitza, ikuspegi psikohistorikoa, inkesta ikonologikoa, ikuspegi pertsonalista, artearen psikoanalisa, belaunaldien metodoa, eredu marxista, ikuspegi soziologikoak...–, tresna soilak direla artearen historiaren azterketaren konplexutasunera hurbiltzeko. Ikasleak, era berean, obra bakoitzaren esanahi zehatza ikasi beharko du eta hartarako obra hori objektibotasunez behatu, aztertu eta deskribatu beharko du, ikuspuntu estetikitik balioetsi beharko du eta obra hori zergatik eta zertarako sortu zen aztertu beharko du.

Introducción a la Estética. Historia, Teoría, Textos, bigarren argitaraldian Deustuko Unibertsitateak Bilbon argitaraua 1991n, ezinbesteko kontsulta esku-liburu bilakatu zen berehala Estetika diziplinako historialarientzat eta unibertsitateko ikasleentzat. Obra garrantzitsu honetan Plazaolak behin eta berriro azaltzen du “pedagogiaren aldetik eraginkorra izateko” helburua eta haren 600etik gora orritan, autorea lehen atalean, Ideia estetikoaren Historia beren *Prestaeratik* izenekoan, planteamendu presokratiko eta metafisikoetatik abiatzen da eta Leibniz eta Spinozaren arrazionalismoraino iristen da; gero, *Sorrera* atalean, gustuko iritziak, subjektiboa dena eta XVIII. mendeko printzipio unibertsalak, Kanten teoriak, tesi erromantikoak etab. azaltzen dira; *Hazkundearen Krisia* deiturikoan, ikerketa alorra zabaltzen da bestelako zientziak erabiltzerakoan: psikoanalisa,

soziologia, semiotika, etnologia, zibenetika..., eta atal horren amaieran konputagailuen artea, arte esperimental eta teknikoak dena agertzen da. Saiakera lan handi honen bigarren partean, *Teoria eta Testuak* izenburukoan, autoreak beste metodologia bat erabiltzen du hamabi atal nabarmenetan, beste batzuetan banatzen direlarik; horien guztien amaieran, autoreak arreta handiz hautaturiko testu multzo bat aurkezten du, zehazki filosofikoak direnez gainera, artistek egindakoak biltzen dituen, hala eskultoreek nola margolarien, olerkarien, musikarien, nobelagileek, arkitektoek... ondurikoak. Ibilbide luze horren bitartez, era errazean baina dagokion zehaztasunez, Plazaolak estetikaren arazoei heltzen die: edertasunaren tipologia, horrek sortzen dituen arazoak, estetikaren eta haren bizipenaren helburua, artea eta artisautza, artea mimesi gisa eta erreala-aren adierazpen gisa, sorkuntza prozesua, inspirazioa eta subkontzientea artista-rengan, arte obra sorkuntza gisa, giza emozioa eta sentimendu estetikoak, nola egituratzen den arte obra eta zein faktorek osatzen duten, artea eta gizarteak, artea eta moralak, eta azken atalak arteaz eta erlijioaz dihardu.

Ediciones Mensajero argitaletxeak 1997an argitaraturiko **Los Anchieta. El músico, el escultor, el santo** obra aurkeztu zuten Jon Bagües musika kritikariak eta Edorta Kortadi irakasleak Donostiako Elizbarrutiko Museoan, besteak beste, Setien Monsinorea, orduko Donostiako apezpikua, eta Koruko Aizarna, garai hartako Kultura Diputatua bertan zeudela.

Liburua osatzen duten hiru ataletan, hiru Anchieta aurkezten ditu Plazaolak: Juanes de Anchieta, Isabel Katolikoaren Errege kaperako musika maisua eta kantaria, Juan de Anchieta eskultorea, Erromanismo migelangeldarraren adierazgarri gorena eta José de Anchieta santua, Sao Paulo sortu zuena eta Brasilgo zibilizatzailea; artistak hirurak eta Gipuzkoako Urrestillako Antxietarren leinukoak.

Plazaolaren ikertzaile lana ez zen haren bizialdiko ezein unetan gelditu, RIEV-erako egindako proiektuan erakutsi zuenez. Ondoz ondoko hainbat emanalditan Euskal Herriko Artearen Historia aurkeztu zuen zehatz eta egokiro, arte mugimendu eta estiloak garatu zireneko zoko eta malkarrak agerian jartzen zituela eta oinarri-oinarrizko bibliografia seinalatzen zuela, Plazaola beti kokatu den ikuspegi pertsonal egoki horretatik.

Juan Plazaolaren **El arte vasco** (Euskal artea) sailaren bederatzi atal argitaratu dira gaur arte RIEV aldizkariaren hainbat aletan¹. Horieta guztietan, lantegi bertsuari ekiten dio egileak: sarrera historikoa edo testuinguruari dagokiona, sintesi lana aztertutiko aldiaren alor guztiei buruzkoa eta bibliografia aukera zabal eta garrantzitsua.

1. Plazaola Artola, Juan. "Cuando no existía Vasconia". RIEV, 44, 1 (1999). "El primer arte abstracto". RIEV, 44, 2 (1999). "Vinieron los romanos". RIEV, 45, 1 (2000). "Entre francos y visigodos". RIEV, 45, 2 (2000). "El arte vasco se cristianiza". RIEV, 46, 1 (2001). "El Arte románico en Euskal Herria". RIEV, 47, 1 (2002). "El arte gótico en Euskal Herria". RIEV, 47, 2 (2002). "El primer Renacimiento en Euskal Herria: el Arte Plateresco". RIEV, 48, 2 (2003) y "El arte vasco del siglo XVII: la sobriedad del Barroco". RIEV, 49, 1 (2004).

“Cuando no existía Vasconia” (Euskal Herririk ez zenean) argitaraturiko lehen atalean, batez ere Goi Paleolitoa (K.a. 30.000-10.000) arakutzen du Juan Plazaolak. Horren alderdi orokorrak aztertzen ditu, arte higigarriaren produkzioa eta batez ere Izturitzeko (Lapurdi) haitzuloko aurkikuntzak arretaz ikuskatzen ditu, labar artean murgiltzen da eta santutegi handiak, hala nola Santimamiñe, Altxerri eta Ekain, nabarmentzen ditu eta, azkenik, gogoeta egiten du arte paleolitikoaren esanahiaz eta horri buruzko teoria gailenez dihardu, laburki bada ere.

“El primer arte abstracto” (Lehen arte abstraktoa) atalean, erromatartu arteko Paleolito ondoko arteari ekiten dio era guztiz erakargarrian. Errealismotik ihes egite horri eskematizazioa, estilizazioa, abstrakzioa deitu diote. Egileak Burdin aroko habitata, megalitismoa, harrespil eta menhirrak ikertzen ditu eta, gainera, zeramikaren eta horma pinturen garapena aztertzen du.

“Vinieron los romanos” (Erromatarrak etorri ziren). Erromatarrak Iberiar penintsulan K.a. III. mendean sartu baziren ere, Euskal Herrian K.a. II. mendearen lehen bi hamarkadetan sartu ziren lehen aldiz. Azterlan honetan, *civitates*, *villae* eta *oppidum* erromatar ereduak nabarmentzeari ekiten dio Plazaolak; batez ere nafar lurraldean aurkitutakoak, zoladura eta mosaikoen hondarrak, nahiz eta harrien hondarrek tratamendu zabalagoa duten: aldareak, hilarriak, erliebeak eta eskulturak. Etxeko hornidurak eta zeramikek osatzen dute atal honetako beste gai bat eta, ildo horretatik Irungo Santa Elenako aztarnategiaren garrantzia nabarmentzen da.

“Entre francos y visigodos” (Frankoen eta bisigodoen artean). Gaur arte aldi horretako hondar gutxi aurkitu badira ere, egileak objektu erabilgarrien ornamentazioaz dihardu bereziki, hala frankoenak nola bisigodoenak, nekropolioetan eta gero eremitorio bisigodoetan aurkituak, batez ere Arabako bi eskualdeetan, Gobiaran eta Trebiñuko Konderrian. Horiek Goi Erdi Aroko erlijio bizitza baten seinaleak erakusten dituzte Euskal Herriarren eremuan.

“El arte vasco se cristianiza” (Euskal artea kristautzen da) atalean, egileak hainbat gaiz dihardu: karolingiar artearen eragina duten obrarik garrantzitsuenak, musulman eta mozarabiarren aztarna agertzen duten obrak, Asturias-Leon erresumaren eraginpekoak eta, gero, Gipuzkoa eta Bizkaiko erromatarren aurreko eraikuntzak eta hondarrak aztertzeari ekiten dio, Kodex eta Beatoetan aurkitzen den erromatarren aurreko ikonografia bereziarekin batera.

“El arte Románico en Euskal Herria” (Arte Erromanikoa Euskal Herrian) ibilbide erakargarria da atala garatzean agertzen den aniztasunagatik. Erromanikoa garrantzitsuagoa den probintzia batzuen aurrean, hots, Araba eta Nafarroaren aurrean, beste batzuetan, Gipuzkoa eta Bizkaian, obra gutxi gorde dira, funtsean erabilitako materialagatik: zura. Lehen euskal erromanikoa aztertu ondoren, XII. eta XIII. mendeko eskultura exentuek eta luxuzko arteak arakutzen ditu.

“El arte Gótico en Euskal Herria” (Arte Gotikoa Euskal Herrian) atala bi azpiatletan banaturik ageri da, Gotikoa Euskal Herrian garatu zen hiru mendeak aztertu ahal izateko: lehen arte gotikoa eta Erdi Aroko artearen amaiera. Egileak

obrarik aipagarrienak arakutzen ditu hala arkitekturan nola pinturan, eskulturan eta luxuzko arteetan. Egileak zenbait gai azpimarratzen ditu: aldi horren izaera polimorfikoa eta lurralde desberdinetan sinkronikoak izan ez ziren aldaketen garrantzia eta Gotikoa nola zabaldu zen Berpizkunderaino.

“El primer Renacimiento en Euskal Herria: el Arte Plateresco” (Lehen Berpizkunde Euskal Herrian: Arte Platereskoa) atalean, Juan Plazaolak zenbait gai nabarmentzen ditu: aldi horrek eraman izan behar duen “inportazio” ezaugarria, elizetan erretaulek hartzen duten garrantzia... “Erromatarren erara” eraikitzen hasi zen, antzinako Erromako ereduaren arabera, mugako eskualdeen eraginaren bidez: Aragoi eta Gaztela. Arabako jauregietatik, Gipuzkoako elizetaraino eta Oñatiko hiri platereskoraino, dena lehen Berpizkunde horretan kokatzen da: arkitektura, erretaulagintza, pintura eta urregintza.

Gaur arte argitaraturiko azken kapituluan, **“El arte vasco del siglo XVII: la sobriedad del Barroco”** (XVII. mendeko euskal artea: Barrokoaren soiltasuna), krisi demografiko, sozioekonomiko eta politikoaren aldi gisa deskribatzen du gain-behera aldi hori, erlijioaren ikuspegitik Trentoko Kontzilioaren ondorioz, lehengoritze eta aurrerapen aldia den bitartean. Egileak “Lehen Barroko” gisa aurkezten du aldi hori, oraindik klasizismotik gertu dena; bertan, arkitektura formek, erretaulen garapen handiagoak eta pinturaren halako beheraldi batek soiltasuna agertzen dute.

Euskal Herriko Artearen Historiako atal horiek luxuzko formatuan argitaratu zituen gero Ostoa argitaletxeak, irakasle, ikertzaile eta ikasleei zuzenduriko oinarritzko material didaktikoarekin batera.

Lerro hauen bidez, sinatzaileak adierazi nahi du hemendik aurrera *Ondare* aldizkariaren argitalpena koordinatuko duela eta, Juan Plazaola bezalako jakintsu bati aurre egin beharrik dakarren umiltasunez, esker onik zintzoena agertu nahi du haren ikerketa ibilbidearen emaitzengatik, gizakiaren ikerketaren zerbitzuan jarritako diziplina etengabe baten fruitua, hain zuzen ere, analisiaren bidez, gizaki horren sorkariez egindako hausnarketa egokien bidez, jarrera zientifiko batetik arte formen historia bat eskaintzearen ondurikoak, irizpide historiko eta dokumentalean oinarriturikoak, eta denbora luzez oraingo zein geroko ikertzaileen kontsulta iturri etengabea direnak eta, zalantzarik gabe, izango direnak.